

Prentsa oharra

Nota de prensa

Dagoeneko prest dauka Udalak Aste Nagusiko dispositiboa, eraso sexistak prebenitzeko eta, erasorik izanez gero, erasotakoari kasu egin ahal izateko

Abuztuaren 8tik 15era bitartean izango da irekita Bulebarreko informazio- eta arreta-gunea; informazioa, sentsibilizazioa eta arreta espezializatua emateko.

Aurten ere jarriko du martxan Donostiako Udalak, Berdintasun Zinegotzigoaren bitartez, Aste Nagusian eraso sexistei aurre egiteko prebentzio- eta arreta-sistema espezifikoa. Ekimen hau ere "Festetan ere aske! Indarkeria sexistarik ez!" kanpainaren parte da. Udalak urte osoan egin duen kanpaina da, indarkeria matxistak prebenitzeko, herritarrak sentsibilizatzeko eta diren arreta-baliabideak pertsona guztien eskura jartzeko.

Dispositibo honen baliabide nagusia informazio- eta arreta-puntu finkoa izango da, Bulebarreko kioskoan egongo dena abuztuaren 8tik 15era bitartean, 11:00etatik 15:00etara eta 20:00etatik 04:00etara. Puntu horretan, eraso sexisten eta sexu-erasoen prebentzioari buruzko informazioa emango da, bai eta arreta eta laguntza espezializatuko baliabideak ere –hala behar duten pertsonentzat–, eta dibulgazio-materiala ere banatuko dute, hainbat hizkuntzatan.

Berdintasuneko zinegotzi Ane Oyarbidek zera nabarmendu du: "Elkarbizitza, errespetu eta askatasun gunea izan behar du Aste Nagusiak, pertsona guztientzat. Prebentzio eta arreta baliabideak handitzen jarraitzen du Udalak; jende guztiak festak seguru eta beldurrik gabe gozatzea nahi dugu-eta". Era berean, "Indarkeria sexistaren prebentzioa erantzukizun kolektiboa da", azpimarkatu du Oyarbidek. "Funtsezkoa da baliabide espezializatuak izatea, baina baita herritar guztien sentsibilizazioa eta inplikazioa bultzatzen jarraitzea ere, baldin eta indarkeriarik gabeko festa batzuk eraikiko baditugu, behintzat".

Prebentzioa, informazioa eta erantzunkidetasuna

Kanpainaren helburua da eraso sexisten aurkako prebentzio-mezuak zabaltzea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea eta indarkeria matxistaren edozein adierazpenen aurrean gaitzespen-jarrera aktibo bat sustatzea.

Eskura diren baliabideei buruzko informazioa emateaz gain, indarkeria-egoeraren bat izanez gero haren aurrean erantzuteko gaitasuna handitu ere

Prentsa oharra

Nota de prensa



egin nahi du Bulebarrean izango den guneak, eta jai-guneetan errespetuaren, baimenaren eta erantzunkidetasunaren kultura sustatu.

Horretarako, herritarrentzako prestatutako informazio-material batzuk banatuko dira Aste Nagusian, gomendio batzuk izango dituztenak indarkeria-egoerak prebenitzeko, eraso jokabideak identifikatzeko eta Udalaren arreta- eta laguntza-baliabideak ezagutzeko. Era berean, kanpainak gogorarazten du garrantzitsua dela indarkeria sexistaren bat izandakoan jardutea, eragindako pertsona babestea, laguntza eskatzea eta eskura diren baliabide espezializatuak aktibatzea.